

Master Amaierako Lana egiteko eta aurkezteko jarraibideak (2023-2024 ikasturtea)

Master Amaierako Lana (MAL) ikasleek egin behar duten lan akademikoaren zati garrantzitsu bat da. 15 ECTS kredituko irakasgaia da (375 ordu guztira), eta ikerketa-lan bat egitean datza, masterreko irakasle den zuzendari baten zuzendaritzapean.

Jarraian MALak aurkezteko egutegia, lanaren egitura eta ebaluazioaren alderdi garrantzitsuenak zehazten dira:

1. Egutegia

Uztaileko deialdia:

Deialdi honetara MALa egiteko eman behar diren orduak bete dituztela justifikatzen duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira:

Izapideak eta epeak:

- Deialdi honetan MALa aurkezteko asmoa masterreko arduradunari jakinarazi behar zaio. Azken eguna: **ekainak 23**.
- Masterreko arduradunari oroitidazkia *pdf* formatua bidali behar zaio (nora.unceta@ehu.eus). Azken eguna: **ekainak 30**

Aurkezpena eta defentsa:

- MALen aurkezpena eta defentsa uztailearen 7 eta 11 bitartean izango da. Aurreko astean aurkezpenaren eguna eta ordua zehaztuko da.

Iraileko deialdia:

Izapideak eta epeak:

- Masterreko arduradunari oroitidazkia *pdf* formatua bidali behar zaio (nora.unceta@ehu.eus). Azken eguna: **irailak 8**.

Aurkezpena eta defentsa:

- MALen aurkezpena eta defentsa irailaren 15 eta 19 bitartean izango da. Aurreko astean aurkezpenaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

2. Egitura

Oroitidazkiak 10-15 orrialde izan beharko ditu, bi zutabetan idatzia. Beharrezkoak diren elementu erantsiak jasoko ditu, hala nola taulak, irudiak edo zerrendak. Txantiloia bat eskuragarri egongo da lanaren egitura jakin batera egokitzeko. Testuak atal hauek izango ditu:

- Izenburua.
- Egilea: ikasle eta zuzendarien izen abizenak, fakultatea, departamentua edo/eta laborategia adieraziz.
- Laburpena
- Hitz gakoak
- Sarrera
- Materialak eta metodoak
- Emaizak eta eztabaida
- Ondorioak
- Eskertzak
- Bibliografia
- Eranskinak, halakorik balego

3. Epaimahaia

Ahozko defentsa presentziala izango da, eta egindako lana masterreko 3 irakaslek osatutako epaimahai baten aurrean aurkeztuko da. Ikasle bakoitzak 15 minutu izango ditu aurkezpena egiteko. Ondoren, epaimahaiarekin egingo den lana eztabaidatuko da, gehienez 15 minutuz.